





Jardunbide egokien dekalogoa



Sarrera



Irisgarritasuna




Zer da informatika arloko
irisgarritasuna?



Informatika arloko irisgarritasunaren
dekalogoa

Sarrera



Erakundeen komunikabide nagusietako bat web orria da.

Era berean, egunero hainbat fitxategi eta dokumentu elektronikoko sortzen ditugu lanean (word, pdf, ppt, etab.).

Hala ere, ez dugu kontuan izaten horietako asko ez direla irisgarriak guztientzat, formatua dela-eta.

Horregatik, pertsona guztiek informazioa baldintza berberetan eskura dezaten bermatzeko konpromisoa hartu du UPV/EHUK.

Irisgarritasuna




Pertsonek edozein **lekutara** heltzeko duten eskubidea, haien mugak edozein direlarik ere.

Zer da informatika arloko irisgarritasuna?











Pertsonak edozein **informaziotara** heltzeko duten eskubidea, haien mugak edozein direlarik ere.

- Web orrialdeko edukiak.
- Dokumentuak (informatikoak, inprimatuak, ikus-entzunezkoak...).
- Horma-irudiak, liburuxkak eta abar.



Hori bermatzeko, hainbat arau hartu behar dira kontuan.

Informatika arloko irisgarritasunaren dekalogoia



-  Aurkezpena edukitik bereizi behar da.
-  Goiburuak erabili behar dira.
-  Zerrendak zuzen erabili behar dira.
-  Taula irisgarriak egin behar dira.
-  Kontuz irudiekin!
-  Ez da inoiz erabili behar kolorea informazio-bide bakar gisa.
-  Atzeko planoko eta aurreko planoko koloreek nahikoa kontraste eduki behar dute.
-  Kontuz multimedia baliabideekin!
-  Loturetako testuak adierazgarria izan behar du.
-  Hizkuntza egokia, argia eta erraza erabili behar da.



1. Aurkezpena edukitik bereizi behar da


Web edukien kudeatzailean:

- Ez itsatsi zuzenean Word dokumentutik (erabili beti hau: "Paste Text")
- Ez eman formatua letra tamainak erabiliz, koloreak erabiliz, azpimarratuz, etab.



Word, LibreOffice eta antzeko dokumentuetan:

- Estiloak erabili formatua emateko.
- Ez eman formatua letra tamainak erabiliz, koloreak erabiliz, azpimarratuz, etab.





2. Goiburuak erabili behar dira

Edukian atalak bereizteko izenburuak erabiliz gero:

Goiburuak ez itxuratu letra lodiak, letra handiagoa, azpimarratua, beste kolore bat eta abar erabilita ([jardunbide desegokia](#)).

Título de la página ? `<h1>Nuestros compromisos</h1>`

(Apply Style) Heading 2 Arial, Helvetica 5 (18 pt) **B** *I* U [List icons]

- Normal
- Heading 1
- Heading 2
- Heading 3
- Heading 4
- Heading 5
- Heading 6
- Address

Compromiso personal:

Nuestro personal trabaja para ayudarte. Nos comprometemos a trabajar con amabilidad y profesionalidad, para intentar facilitarte lo que necesites.

Compromiso social:

- IGUALDAD: Nos comprometemos a ir adaptándonos a la Ley 4/2005 para la Igualdad de Mujeres y hombres, donde se menciona explícitamente el uso no sexista del lenguaje en

Ordena logiko bati jarraituz erabili goiburuak ([jardunbide egokia](#)).



3. Zerrendak zuzen erabili behar dira

Ez erabili zerrenda ordenatuak elementuek ordena zehatzik ez badute

Entregatu beharreko dokumentuak:

1. Nortasun-agiriaren fotokopia.
2. Baliabideen aitortpena.
3. Errenta-ziurtagiria.
4. Matrikularen fotokopia.
5. Ikasle-txartelaren fotokopia.

X gaizki

Zerrendetan agertu beharreko elementuek zerrendetan agertu behar dute binetekin.

Entregatu beharreko dokumentuak:
nortasun-agiriaren fotokopia,
baliabideen aitortpena,
errenta-ziurtagiria, matrikularen
fotokopia, ikasle-txartelaren
fotokopia.

Beka eskatzeko prozedura:

1. Aurretiko izen-ematea egin.
2. Onarpen-berrespena jaso.
3. Matrikula egin.
4. Beka-eskaera egin.
5. Dokumentazioa entregatu.


ondo

Entregatu beharreko dokumentuak:


- Nortasun-agiriaren fotokopia.
- Baliabideen aitortpena.
- Errenta-ziurtagiria.
- Matrikularen fotokopia
- Ikasle-txartelaren fotokopia.



4. Taula irisgarriak egin behar dira



- **Goiburuak identifikatu** (errenkadak edo/eta zutabeak)
- Azaltzen duen informazioaren **laburpen** bat egin.
- Taularen **izenburuaren** berri eman.





5. Kontuz irudiekin! (1)

- **Apaingarriak badira:** utzi aukerako testua zuriz.



OPE PAS 2007
Portal sobre la OPE del PAS del 2007

Universidad del País Vasco | Euskal Herriko Unibertsitatea | CAMPUS DE EXCELENCIA INTERNACIONAL

Proyección Universitaria

Inicio [euzkera](#) | [español](#) Campus Álava | Campus Eizkaia | Campus Gpuzkoa

[Perfiles](#) | [Estudios](#) | [Estructura UPV/EHU](#) | [Investgación](#) | [Acceso a la Universidad](#) | [Áreas temáticas](#) | [Servicios](#) | [Directorio](#) | [Intranet](#)

[» Inicio Proyección Universitaria](#)

Quiénes somos

[Presentación](#)

[Estructura](#)

Presentación Proyección Universitaria

El Vicerrectorado de Responsabilidad Social y Proyección Universitaria es el responsable de impulsar la integración de la Universidad del País Vasco en el entorno económico y social en el que se desarrolla. Entre sus cometidos está el de irigidas a conseguir una de la Universidad, así iagen corporativa de la

ondo ✓ alt=""



Fecha de la última modificación: 23/02/2009

¿QUIÉNES SOMOS?



~~X~~ gaizki

alt="Imagen de presentación"

- [Presentación](#)
- [Historia](#)
- [Localización](#)
- [¿Cómo contactar?](#)

abajo de la Universidad ción social son:
rativa de la UPV/EHU. Universitaria.
rchandising.
le Unamuno.
azgo y patrocinio.



5. Kontuz irudiekin! (2)

- **Informazioa badute:** haien eginkizuna deskribatu edo/eta informazio garrantzitsua hautazko testuan idatzi.

Testua edukiz gero, testu hori hautazko testuan agertuko da.



Fotografía ganadora del primer premio del XV Concurso 'Todos somos diferentes' que organiza la Fundación de Derechos Civiles.

Autor: **Jairo Berbel Monreal** (Alumno de la Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación).

Título de foto: **El largo camino de la infancia africana.**


Irudi hauetan garrantzitsuena egitekoa da: imprimatu, telefonoa, mezu elektronikoa, harremanetarako datuak, etab.

Kasu honetan, irudia deskribatu beharko litzateke.



5. Kontuz irudiekin! (3)

• **Informazio asko badute** (organigramak, mapak, grafikoak...):



Imagen

Texto alternativo de la imagen

Hautazko testuan azaldu zer den.

Informazio zabalaren testu-alternatiba bat gehitu behar da.

- Vicerrectorado de Responsabilidad Social y proyección Universitaria: Amalia Maseda
- Secretaria del Vicerrectorado: Ana Rosa Ruiz
- Dirección para la Igualdad: Jasone Astola
- Dirección de Responsabilidad Social: Iratxe Amiano
- Dirección del Servicio Editorial: J. Ignacio Armentia

Alternativa textual



5. Kontuz irudiekin! (4)

• **Informazio asko badute** (organigramak, mapak, grafikoak...):

• Informazio zabala teknika hauetakoren bat erabiliz gehitu behar da, adibidez:



• Informazioa testu gisa gehitu irudiaren ondoan (adib.: [Ikasle Kontseilua](#)).

• Irudian lotura bat egin deskribapen xehatua duen edukira heltzeko (kasu horretan, loturaren "title" gunean irudiaren deskribapenera eramaten duela azaldu beharko da).

• Deskribapen zabalera eramaten duen testu-lotura bat gehitu (adib.: [Latinoamerikako masterren mapa](#)).

[D]

6. Ez da inoiz erabili behar kolorea informazio- bide bakar gisa (jardunbide desegokia)






6. Ez da inoiz erabili behar kolorea informazio- bide bakar gisa (jardunbide egokiak)




Gorritz agertzen diren datek (izartxo markatuta) ikasgela hartuta dagoela adierazten dute, eta berdez agertzen direnek (markarik gabe), berriz, libre dagoela:


- **Abenduak 16 (*)**
- **Abenduak 17**
- **Abenduak 18**
- **Abenduak 19 (*)**
- **Abenduak 20**



7. Atzeko planoko eta aurreko planoko koloreek nahikoa kontraste eduki behar dute



Nahikoa kontraste duen testua



Kontraste gutxi duen testua




8. Kontuz multimedia baliabideekin!

- Pantailan distira eragiten duten animazioak eta efektuak saihestu, baita edukiak dir-dir egitea ere.
- Saihestu erabiltzaileak kontrolatu ezin dituen bideoak eta animazioak (mugimendua gelditu, soinua kendu, etab.)
- Aukera irisgarriak eskaini behar dira:

- **Transkribapen zehatua** 

- **Azpitituluak** 

- **Audiodeskribapena**



9. Loturen testuak adierazgarria izan behar du



Argi eta garbi identifikatu lotura bakoitzaren xedea:

Jardunbide desegokiak:

- Adibideak: [Ikus gehiago](#), [egin klik hemen](#), [informazio gehiago...](#)
- Ez errepikatu testu bera lotura desberdinetarako.
- Leiho berriak jakinarazi gabe irekitzen dituzten loturak ez egin.

Jardunbide egokiak:

- Adibideak: [UNE 139083:2004 Araudia jaitsi \(pdf, 793 KB\)](#), [Masterrean izena eman...](#)
- "Title" gunea (loturaren deskribapena) erabili informazioa zabaltzeko, loturako testua nahikoa zehatza ez bada.

10. Hizkuntza egokia, argia eta erraza erabili behar da



- Testuan akronimo edo laburdura bat agertzen den lehen aldian forma luzea adierazi behar da parentesi artean:
 - Adibidez: EB (Europar Batasuna), AZP (Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonala), etab.
- Loturaren batean siglak erabiliz gero, forma luzea adierazi behar da "title" gunean (loturaren deskribapena).
- **Testu argiak eta errazak: esaldi eta paragrafo laburrak, ideia nagusia testuaren hasieran...**
- Aurkibidea jarri beharreko eduki luzeetan aingurak erabili, adibidez.
- Ez egin ortografia- eta puntuazio-akatsik.



EUSKAMPUS
Nazioarteko Bikaintasun Campusa
Campus de Excelencia Internacional